



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 3a

42. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa. Osoko zuzenketak (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.**

### *OSOKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dit. Proiektu hori 2012ko martxoaren 23ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Zioak: Denok dakigu nolako eraldaketak izaten ari diren munduan, orain dela urte gutxi batzuk pentsaezinak zirenak. Kapital finantzarioak aberastasuna sortzeko beste edozein moduren gainetik hartu duen nagusitasunak berarekin ekarri du erabaki guneak –ekonomikoak ez ezik politikoak ere– legebiltzarretatik gune ez-demokratikoetara aldatzea.

Herritarrek harriduraz ikusten dute nola gobernu egokia zaindu beharko luketenek ez dituzten haien interesak errespetatzen. Erabakitzen diren politika ekonomiko eta sozialak ez dira bideratzen herritar guztientzako bizi-baldintza duinak bermatzera. Gutxiengo baten zikoizkeria aseezina dela eta, elite batek multinazionalen eta bankuen zuzendaritza- eta administrazio-kontseiluetatik bere legeak inposatzen ditu, buruzagitza politikoe-tan ia inongo erresistentziarik aurkitu gabe.

Erabaki horiek, klase dirudunen eta gainerako populazioaren artean dagoen arrakala areagotu eta, gainera, planeta bera ere suntsitzen dute, herrialde txiroenetan are modu gordinago batez.

Ikuspegi samingarri horren aurrean, eta politika egiteko beste molde batez jokatzeko ezinezkoa dela diotenen aurrean, hain zuzen ere kontrakoa planteatzen duen erantzun herritar bat sortzen ari da planetaren luze-zabalean. Gauzak egiteko beste molde bat badago, geure burua antolatzeko beste molde bat badago, eta ekoizteko beste molde bat, eta ekoizten den aberastasuna banatzeko beste molde bat.

Espainiako Estatuan, 15 M mugimendua da herritarren erantzun hori modu argienean irudikatu duena. Nabarmenak dira mugimendu horrek estatu osoan sortu dituen gatazka soziala eta atxikipe-na, zeinaren bitartez eskatzen baitzaio zer eta demokrazia erreala ustez 30 urteko ibilbide demokratikoa daukan estatu bati.

Testuinguru honetan, adierazi beharra dago Nafarroa eta oro har Euskal Herria lur aberatsa direla eduki demokratiko eta parte-hartzaile sako-neko antolamendu-ereduetan, eta historikoki ere hala izan direla. Kontzejuak, batzarrak, auzolana eta abar. Eta gaur egun, gure gizarteko elkartegintzaren ehundura, zalantzarik gabe, Europako aberatsenetako bat da. Zorionez, gizarte kritikoa gara, mobilizaziorako eta erantzuna emateko gaitasun handikoa. Politikoki heldua eta aurreratua den gizartea.

Hori dela eta, herritarren ordezkariak garen aldetik, aurrera egin behar dugu herritarren asmo berriei erantzuna emanen dieten eredu berrietarantz, demokrazia errealaren eskakizunei erantzunen dieten tarantz. Egiatzko demokrazia parte-hartzaile baterantz aurrera doazen ereduak. Demokrazia baterantz, non interes ooren gainetik biztanleriaren interesak eta ongizatea jarriko diren.

Esparru politikotik hasiak dira jada herritarren eskakizun zabal hori kezkatzen ikusten, eta hari erantzuna emateko beharra detektatu da. Estatu Batuetako lehendakari Barack Obama da korrante horri forma ematen diona, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko bere memorandumaren

bitartez. 2009ko urtarrilean eman zen ezagutzera memorandum hori. Teknologia berrietan oinarrituta, eredu anglosaxoi bat proposatzen da maila orokorrean erantzunak emateko.

Eta horixe da Nafarroako Gobernuak hautatu duen eta foru lege proiektu honetan jaso nahi izan duen erreferentziako eredu. Lehenbizi, aitortu beharra dago proposamen honek alderdi positibok badituela, aurrerapauso nabarmenak direnak informazioa eskuratzeari eta gardentasunari dagokienez. Horren adibidea dira software librearen erabilera, informazio publikoa berrerabiltzeko aukera edo proiektu honek administrazioaren isiltasunari ematen dion balioa.

Hala eta guztiz ere, nabarmenak dira eta sakontasun handikoak ekimen honetan aurkitzen ditugun hutsak. Huts horiek zama bat dira proiektuaren beraren gaitasunetarako. Adibidez, gardentasuna hobetzeko proposatu diren neurriei dagokienez, egia da foru lege proiektu honek bete egiten dituela nazioartean Gobernu Irekia deitutakoaren oinarritzko printzipiotzat jotzen direnetatik gehienak, baina, halere, uste dugu ez dela nahikoa, eta ez dela apustu ausarta egiten gure taldearen iritziz inongo konplexurik gabe egin beharko litzatekeenari dagokionez: erantzukizunak hartzea eta kontuak ematea. Kontaezinak dira baldintza hauek ezinbestekoak direla dioten egileak

Orain arte goi kargu batzuek edukitzen zituzten pribilegioei amaiera ematen aurrera egin nahi bada, jakitera eman direnean herritarrengan ezinegon handia eragin baitute, uste osoa dugu ezinbestekoa dela adierazitakoaz harantzago joatea. Esate baterako, proiektuak ez du atzeraeraginik alderdi garrantzitsu batzuetan. Zehazki, xedapen iragankor bakarrak ezartzen du Nafarroako Foru Administrazioako goi karguen eta Nafarroako Gobernu kideen egoera aldatzera bideratutako neurriak ez zaizkiela aplikatuko orain arte egoera honetaz aprobetxatu direnei. Ez dugu uste hori denik herritarrek gobernu egokiaz ulertzen dutena.

Beste maila batean, proiektu honetan antzematzen dugun gabeziarik handiena da oinarri gisa duen herritarren parte-hartzearen kontzeptua. Ikuspegi hori, gure ustez, azalekoa da. Lehenengo, eta 3. artikuluan ematen zaion definizioa gorabehera, parte-hartzea lotzen da informazioa eskura egotearekin, eta ez herritarrek parte-hartze efektibo eta loteslea edukitzearekin. Gobernu Irekiaren zuzendari nagusiari entzun diogu adierazten lege proiektu honek "aldaketa ekarriko duela gobernatzeko moduan" eta "esperientzia kolektiboa gure erkidegoaren zerbitzuan jarriko dela". Horren adibide gisa Islandia jarri zuen, han Konstituzio berria egiteko herri-partaidetzako ezarri zen

prozesua dela eta. Horregatik, deigarri egiten da proiektuan ez egitea inongo aipamenik gizaratearen parte-hartze zuzenari buruz, herri kontsultak egiteko aukerari buruz, garrantzi berezia edo interes orokorra duten gaietan.

Herritarren parte-hartzea modu serioan landu nahi duen ezein legek, zioen azalpenean argudiatzen dena egiaz gauzatu nahi baldin badu, ezin du herri kontsultaren figura ahaztu, herri kontsultak hauteskunde-gorputzaren zuzeneko esku-hartzea bideratzen baitu. Herritarrei entzuten hasi nahi badugu eta erabakiak hartzen parte har dezatela bideratu nahi badugu, tresna berriak eman behar dizkiogu geure buruari. Hori dela eta, gure taldeak uste du lege proiektu honek herri kontsulten etorkizuneko legearen oinarriak ezarri behar dituela.

Bigarrenik, uste dugu parte-hartzea dela-eta proiektuan aipatzen diren bide asko (kontsultak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak), zeinak parte-hartzearen egiazko ardatzak izan bailitezke, erabateko zehazgabetasuna dutela, bai izanen lituzketen funtzioei dagokienez, bai hautatzeko prozedurari dagokionez ere. Proiektu honetan definitzen eta garatzen diren bezala, nekez irudika daiteke nola gauzatuko liratekeen. Ez zaigu iruditzen parte-hartze efektiborako tresnak direnik; iritzi-zundaketa batzuk direla iruditzen zaigu, ez-lotesleak, eta Administrazioak hautatutakoak izatearen irizpidearen menpe egonen direnak etengabe. Hau ez da zehazki parte-hartze erreala eta gardentasunari ateak irekitzea, zeren eta errotik moztzen baita figura horien potentzialtasuna, hautespen sistema opako batean oinarrituta dagoelako.

Bestalde, esan daiteke, halaber, informazioa eskuragarri egoteko bideak eta parte hartzeko mekanismoak elitistak eta selektiboak direla, Nafarroako herritarren osotasunari erreparatuz gero. Esate baterako, Herritarren Parte-hartzerako Erregistroak gehiago ematen du boluntarismo ariketa bat, prestaketarako zelaiko lana egiteko sistemai dagokiena, parte hartzeko prozesu serioetarako bide bat baino. Bai erregistroa, bai informazioa eskuratzeko bidea edo entzute aktiboko mekanismoak ia guztiz oinarritzen dira teknologia berrietan eta sareko metodoetan. Besteak beste, aipamen bakarra ere ez dago batzar-prozesuei edo balizko osoko bilkura irekiei buruz.

Proposatzen diren mekanismoak profil oso zehatzak dituzten pertsonentzat pentsatuta daude, pertsona nahiko gazteak, gaitasun handiak dituztenak eta normalean lehendik sistemai eta informazioari konektatuta egon eta jarduketa sozialerako esparruak dauzkatenak. Gure iritziz, parte-hartzerako eskema pasibo bat da, non admi-

nistrazioak espero baitu herritarrak Administrazioaren erritmoei eta beharrei egokitzea.

Halaber, argi dago ezinbestekoa dela, gai publikoak kudeatzeko eredu berriak ezartzeko, egiazko demokrazia parte-hartzaile baterantz aurrera egitea. Esparru horretan, nabarmentzekoa da izaera orokorreko xedapenen lanketan parte hartzeko eskubidea, 44. artikuluan araututakoa, lekukotasuna ematearen esparrukoa dela guztiz. Iradokizunak bidaltzeko aukera aitortzen zaie herritarrei, baina zehazten da parte-hartze horrek, berez, ez diola aitortuko kasuko herritarrari prozeduran interesduna izatea.

Esparru berean, ez dugu ulertzen, ezta ere, nola parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzeko orduan komunikabideak kanpo uzten diren, garaiak eta oharpen nahiz iritzien adierazpena bideratzeko bitarteko gisa. Xede horretarako, komunikazio instituzionaleko bideak gordetzen dira soilik, eta horrek potentzialtasuna kentzen dio informazio horren zabalpen efektiboari.

Bestalde, bazter uzten da Aurrekontuei buruzko Legeari dagokion guztian herritarrei protagonismo handiagoa emateko aukera oro. Hasteko, eskuragarri egonen litzatekeen informazioa oso mugatua da, gure ustez. Soilik eskuratu ahalko litzateke jada aurrekontuak onetsi direnean, eta horiek hiru-hileko bakoitzean exekututzen direnean. Ez dago aukerarik aurrekontuen prestaketa-prozesua eza-gutzeko, aurreproiektutik hasita, ez eta kontusailak aurreko urtekoekin alderatzeko ere, besteak beste.

Eta ez du aukerarik ematen, ezta ere, aurrekontu parte-hartzaileak lantzeko prozesu bat zabaltzeko, nahiz eta hori ezinbestekoa iruditzen zaigun. Ez dezagun ahanz edozein erakunderen aurrekontuak direla garatuko diren politikak markatzen dituztenak. Politika ekonomikoan parte hartzeko aukera bat-batean ezabatzea zera da, herritarrei bere dirua nola gastatuko den definitzen duen –eta, azken batez, desio duen gizartea definitzen duen– tresna kentzea. Hori dela eta, mekanismo batzuk ezarri beharko lirake herri-zuzenketak egiteko, banakakoak nahiz kolektiboak, sarean, baina baita batzar irekien bitartez ere, sektoreka, eta abar.

Halaber, faltan botatzen dugu, parte-hartzearen kultura sustatzeko helburuari dagokionez, hezkuntzaren arloari buruzko aipamenen bat. Prestakuntza eta sentsibilizazio planak ez dira mugatu behar soilik Administrazio Publikoko langileetara; aitzitik, harantzago joan behar dute. Gure ustez, herritarren parte-hartzea eskolaren esparrutik bultzatu eta sustatu beharko litzateke, bai eta helduen hezkuntza jarraituaren ikuspegitik ere. Gizarte kritiko eta parte-hartzaile bat lortzeko eskatzen du inbertsio handia egitea gizarte hori eraldatzeko, gai publikoen kudeaketa ulertzeko eta hartan parte hartzeko moduari dagokionez, harik eta demokrazia parte-hartzaile errearen ereduaren sortzea lortu arte.

Kezkagarri iruditzen zaigun beste alderdi bat da euskarari ematen zaion trataera; izan ere, proiektu honetan hondarrekota izaten jarraitzen du, eta ez da inolaz ere haren presentzia bermatzen. Soilik bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen da gai hori, eta zehazten du behar diren neurriak hartuko direla modu progresiboan ahalbidetzen joateko informazio publikoa hizkuntza horretan zabal dadin Nafarroako Gobernuaren web atarian. Esaldi hori bera erabiltzen da Euskarari buruzko Foru Legean hedabideetan euskararen presentzia sustatzeari dagokionez, eta aurten esparru horretara bideratutako kontusaila desagertu egin da.

Ondorio gisa, nabarmenduko genuke ezaugarri hauek dituen lege batek potentzialtasun handia daukala, eta Espainiako Estatuan ez ezik munduan ere aitzindaria izanen litzatekeela, baldin eta herritarrek bizitza politikoan parte-hartze erreal eta efektiboa izateko mekanismoak ezarriko balira. Iruditzen zaigu hau ez dela edozein lege proiektu, garrantzi handia duela eta mugarririk izan daitekeela Nafarroan politika egiteko moldeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, idatzita dagoen bezala, eta aitortuta ere alde askotan aurrerapauso bat dela, uste dugu oso azaleko maila batean geratzen dela, zioen azalpenean adierazi ditugun alderdietan.

Hori dela eta, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak osoko zuzenketa hau aurkeztu du, foru lege proiektu hau Gobernuari itzul dakion eta planteatutako gaiak beren dimentsio eta sakontasun osoan landu ahal daitezen.

**2. ZUZENKETA****IZQUIERDA EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege Proiektuari aurkeztua.

**ORDEZKO TESTUA****Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Lege proiektua****ZIOEN AZALPENA**

Herritar guztiak bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalen eta sozialean benetan parte har dezaten, eta parte-hartze hori Espainiako Konstituzioan ageri den printzipioetako bat da, funtsezko baldintza da ziurtatzea informazioa eskuragarria izanen dela eta botere publikoen jarduketa oro gardena izanen dela. Horregatik ezartzen du Estatuko oinarrizko legediak, bereziki Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanek gardentasunaren eta parte-hartzearen printzipioak izan behar dituztela gidari, eta horregatik arautzen ditu hain luze eta zabal informazioa eskuratzeko eskubidea eta erregistroetan eta artxi-boetan bildutakoak eskuratzeko eskubidea.

Nafarroako antolamendu juridikoak ere jasoa du administrazio publikoek beren jardunean gardentasunez jokatu beharraren printzipioa; esate baterako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean eta Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legean, non honela definitzen baita gardentasunaren printzipioa: "administrazioaren betebeharra herritarrei, oro har nahiz banan-banan, informazioa emateko bere jardura burutzen duenean, antolaketaren eta zerbitzu publikoak emateko moduaren gainean; orobat, erantzule publikoen betebeharra, zeregin publikoetan zintzo jokatzeko".

Edonola ere, administrazio publikoak beren jardunean benetan gardenak izan daitezten lortzeko bidean, badira zenbait zailtasun eta erresistentzia, halako moduz non komeni baita arau espezifikoak ezartzea, gardentasunaren printzipioa bermatzeko, horrela, administrazio jardueraren esparru desberdinetan, herritarrek informazioa eskuratzeko mekanismo eraginkorrak aurreikusiko dituzten arauak, eta bidea emanen dutenak barneko nahiz kanpoko bitartekoak ezartzeko, kontrolatze aldera ea printzipio hori betetzen den.

Horregatik, munduko zenbait herritan, tartean Espainian, berriki, eta bereziki autonomia erkidego espainiar zenbaitetan azken urteotan, legedi espezifiko bat joan da sortzen, kudeaketa publikoaren gardentasuna ziurtatzera bideratua. Ildo berean doaz nazioarteko araua zenbait ere, hala nola Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmena, Europako Kontseiluak Tromsø hirian 2009ko ekainaren 18an gauzatua, kide diren estatuek berrespen bidean dutena gaur egun.

Foru lege hau ematen da kontuan hartuta Nafarroak zer eskumen dituen, batetik, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren araubide juridikoaren gainean eta administrazio horren menpeko ente publikoen araubide juridikoaren gainean; bestetik, zer eskumen dituen Toki Administrazioaren arloan; eta, azkenik, zer eskumen dituen, zuzenbide substantiboko edo antolamenduaren arloko espezialitateen ondorioz, prozedura administratiboko arauari dagokienez. Eta foru legeak helburu du gardentasunaren printzipioa benetan bete dadila, beharrezkoa baita herritarren parte hartzerako, botere publikoen jardunaren zilegitasunerako eta horien kudeaketaren eraginkortasunerako baldintza gisa.

**I. KAPITULUA****Xedapen orokorrak****1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea da garantizatzea Nafarroako administrazio publiko guztiek eta beren arduradun, organo eta menpeko entitateek ahalik eta informazio gehiena emanen dietela herritarrei beren antolamenduari, eginkizunei eta jarduerari buruz; garantizatzea herritarrek eskubidea izanen dutela administrazioek ematen duten informazioa eskuratzeko, zuzenean, azkar eta erraz; eta berdin beraiek administrazioei eskatutako informazioa ere; saihestea edozein itzalgune sor dadin administrazio publikoen jardunean, eta gardentasun erabatekoa ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea.

**2. artikulua.** Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hau hartzen da Administrazio Publikotzat: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta harekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak, bai eta Toki Administrazioa osatzen duten entitate publikoak ere, eta horiekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak.

2. Sozietate publikoek, fundazio publikoek eta Nafarroako administrazio publikoekin eta beren erakunde publikoekin lotutako zuzenbide publikoko entitateek, eta haien agintaritzapean zerbitzuak

ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoek nahiz pribatuek, foru lege honen printzipio gidarrietara egokituko dute beren jarduera, ezarriak dituzten arauekin bat.

3. Informazioa eskuratzeari buruzko legedi espezifiko baldin badago gai jakinen batean, foru lege hau legedi horren osagarri gisa aplikatuko da.

**3. artikulua.** Informazio-eskubidea eta doako-tasuna.

1. Prozedura administratiboari buruzko oinarriko legediak aitortzen dituen eskubideak gorabehera, edozein pertsonak du eskubidea, eskaera aurkeztuta, administrazio publikoek beren esku duten informazio guztia lortzeko. Horretarako, ez da interes jakinik adierazi behar, eta mugak izan dira, soilik, lege honetan, beste batzuetan edo lege mailako beste edozein arautan espresuki ezarritakoak.

Informaziotzat joko da administrazio publikoen esku dagoen edozein datu edo agiri, edozein dela ere bere jatorria edo data, eta edozein duela ere sorbidea, biltze-modua edo eskurabidea: idatzia, inprimatua, soinuak, bisuala, elektronikoa etab.

2. Eskubide horren barruan dago eskatutako informazioa jaso ahal izatea hautatutako moduan edo formatuan, baita Administrazio elektronikoaren baliabide eta euskarrietan ere, betiere administrazio publiko eskudunek horretarako modurik baldin badute.

3. Eskubide horren barruan dago, baldin eta informaziorik ez bada eman, jakin ahal izatea zergatik ez den eman eskatutako informazioa, bai batere informaziorik eman ez denean bai neurri batean eman ez denean, eta zergatik ez den informazioa eman eskatutako moduan edo formatuan.

4. Foru lege honetan araututako informazio-eskurabidea, orokorrean, doanekoa da. Kopia egiteagatik eta informazioa jatorrizko ez beste formatu batera eramateagatik tasa bat edo prezio publiko bat ordaintzea eska liteke.

**4. artikulua.** Antolaketa eta koordinazioa.

1. Administrazio publikoak behartuta daude beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartzea, informazio-sistema integral bat edo jakintzaren kudeaketaren sistema integral bat izate aldera, ziurtatuko duena herritar guztiek eskura izan dutela informazioa.

2. Administrazio publikoek unitate espezifikoak jarriko dituzte, behar diren bitartekoez hornituak, arduratuko direnak herritarrek eskatutako informazioa kudeatzeaz.

3. Administrazio publikoek lankidetzarako eta koordinaziorako mekanismoak ezarri behar dituzte; betebeharrak horren helburua da herritarrei modurik eraginkorrean ematea bidea foru lege honetan aitortutako eskubideak baliatzeko.

**5. artikulua.** Akzio publikoa

Foru lege honetako eta garatzen duten araututako xedapenak bete daitezela exijitzeko akzioa, administrazio organoetan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erabil daitezkeena, publikoa izanen da.

## II. KAPITULUA Publizitate aktiboa

**6. artikulua.** Betebeharrak.

1. Administrazio publikoek, oro har, eskuragarri jarri behar diete informazioa herritarrei; informazio argia, objektiboa, eguneratua eta eskuraerraza. Honakoa da eskuragarri jarri beharreko informazioa:

a) Beren antolamendu-egitura, adierazita zer eginkizun dituen organo bakoitzak, zer egoitza duen eta dituen langileen direktorioa. Horrela jokatuko behar dute, halaber, administrazio publiko bakoitzarekin lotura duten sozietate publikoek, fundazio publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek. Denek adierazi behar dute nola jarri beraiekin harremanetan telefonoz, postaz edo bitarteko elektronikoz. Informazio horren barruan sartuko da aholkularitzako organoei buruzko informazioa eta interes sozialen parte-hartzea bideratzen duten organoei buruzkoa; adieraziko da organoek zein kidek osatzen dituzten, eta, kasua bada, kide horiek zer erakunde ordezkatzen dituzten.

b) Ordainsariak, baita, kargua uztean jasotzekoak direnak ere halakorik egonez gero; goi karguen adierazpenak beren jardueri eta ondasunei buruz, barne direla azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritakoak, hau da, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legean ezarritakoak; Toki Administrazioari dagokionez, hautetsi guztien eta izendapen libreko kargu guztien adierazpenak, beren jardueri eta ondasunei buruzkoak. Era berean, langile publikoen guztizko ordainsariei buruzko informazio orokorra, mailaka, lanpostuka eta organo noka adierazita.

c) Nortzuk diren langileak ordezkatzen dituzten organoetako kideak, eta zenbat diren organo bakoitzean dauden liberatu sindikalak, adierazita zer erakunde sindikaletakoak diren, bai eta libera-

tze horiek administrazio publikoei eragiten dizkieten kostuak ere.

d) Honako inbentario eguneratua: prozedura administratiboena, adierazita horietako zein gauzatu daitezkeen formatu elektronikoan; idazkiak eta komunikazioak aurkez daitezkeen erregistroena; eta herritarrek parte hartzeko dauden prozedurak.

e) Zerbitzuen katalogo orokorra eta prestatutako zerbitzu-gutunak, barne direla betiere zerbitzuen funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko prozedurak.

f) Indarrean diren aurrekontuak; aurrekontu osoak, edukiaren aldetik, eta exekuzio-mailari buruzko datuak hiru hilabete behin eguneratuta. Halaber, gutxienez azken bost ekitaldietako kontu orokorrak. Bereziki, xehakatur agertu beharko du azken ekitaldian zer gastu egin den herri-lanetan, hauteskunde prozesuetan eta publizitate instituzionaleko kanpainetan.

g) Indarrean den araudia, lege eta erregelamendu mailakoa, hirigintzako planeamendua barne dela, eta, arau-proiekturik tramitatzen ari bada, proiektu hori eta bere aurrekariak.

h) Formalki onetsitako jarduketa-planak eta -programak, eta, bereziki, xedapen arau-emate batean ezarritakoa betetze aldera onetsiak izan direnak.

i) Elkarlanerako hitzarmenei, kontratuei, esleipenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa, foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

j) Zabalkunderako garrantzitsuena den informazio geografikoa eta ekonomikoa, adieraziz zein diren erabilitako iturriak, ohar metodologikoak eta erabilitako ereduak.

k) Nafarroako estatistika planetatik eratorritako informazio guztia.

l) Zerbitzu publikoen kalitatearen gaineko ebaluazioen emaitzei buruzko informazioa, baita politika publikoen eragin sozialaren ebaluazioaren emaitzei buruzkoa ere.

m) Administrazio publikoen baimena, kontrola edo fiskalizazioa eskatzen duten egintza administratiboak gauzatea ahalbidetzen duten baimen administratiboak, lizentziak, erantzukizuneko aitopenenak eta bestelako egintza administratiboak, baldin eta zuzeneko eragina badute jabari publikoaren kudeaketan edo zerbitzu publikoen ematean.

n) Lan eskaintza publikoa, langileak hartzeko deialdiak, berdin lanpostu finkoetarako edo aldi baterakoetarako, lanpostuak betetzeko deialdiak,

hautaketa-prozesuetako emaitzak, eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak nahiz lan prestakuntzako edo gora jotzeko prozesuetan sortzen diren zerrendak, halako moduz non izangai bakoitzak modua izanen baitu jakiteko uneoro bera zein postutan dagoen.

ñ) Kide anitzeko organoen erabakien laburpenak, eta kide bakarreko organoen erabakienak, baldin eta, esleiturik duten jarduerarengatik, oro har herritarrentzat garrantzitsutzat jotzen den informazioa izan badezakete.

o) Indarreko araudiari jarraikiz publiko egin beharrekoa den gainerako informazio guztia.

2. Zerbitzu publikoak kontzesio-hartzaile baten bidez ematen direnean, administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte kontzesioa hartzen duenak zerbitzu publiko horiei buruzko informazioa eman dezan, kontzesio-kontratuaren ondoriozko betebeharrak gisa.

#### **7. artikulua.** Informazio publikoa berrerabiltzea.

1. Informazio publikoa berrerabil dadila sustatuko dute administrazio publikoek. "Berrerabiltzea" honakoa dela ulertuko da: herritarrek erabiltzea administrazio publikoen esku dauden eta erabilera librekoak diren datuak merkataritzako helburuetarako edo bestelakoetarako, betiere erabilera hori ez bada jarduera administratibo publiko bat, eta Estatuaren oinarritzko legeriarekin bat erabiltzen badira; eta, zehazki, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko araudiarekin bat.

2. Honako helburu funtsezko hauek bilatuko ditu berrerabilerak:

a) Herritarrei bidea ematea hobeki ezagut dezaten sektore publikoaren jarduera.

b) Datu horietan oinarritutako informazio produktu eta zerbitzuak sortzeko erraztasunak ematea.

c) Datuak erabiltzeko erraztasunak ematea, enpresa pribatuek balio erantsiko informazio produktuak eta zerbitzuak eskain ditzaten.

d) Merkatuko lehia erraztea, horren faltsutzea mugatuz.

3. Ondorengo artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, administrazio publikoek sustatuko dute, oro har, datuak libreki berrerabiltzea, alde aurreko eskaera egin beharrik gabe eta berrerabiltzeko ereduak lizentziarik eman beharrik gabe. Datuak berrerabiltzeko alde aurreko lizentzia beharko da soilik sektore publikoaren informazioaren berrerabilerari buruzko legedian espresuki ezarritako kasuetan.

### III. KAPITULUA

#### Gardentasuna kudeaketa administratiboan

**8. artikulua.** Gardentasuna kontratazio publikoan.

Kontratu publiko guztiei buruzko informazioa emanen da Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

**9. artikulua.** Gardentasuna elkarlanerako hitzarmenetan.

1. Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa, zeina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 92. artikulua sortu baitzuen, publikoa izanen da eta edozeinek kontsultatzen ahalko du, doan, bertaratuta nahiz Internetez.

2. Toki entitateek, hala erabakitzen badute, beren Hitzarmenen eta Itunen Erregistroa sortzen ahalko dute, baina, betiere, informazioa eskuratzeko ahalko da bertaratuta nahiz Internetez.

**10. artikulua.** Diru-laguntzen gardentasuna.

1. Administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntza guztiei buruzko informazioa eskuratzeko ahalko da kasuko administrazioa bertaratuta nahiz Internetez.

2. Edozein modutan, honako gaiei buruzko informazioa eman beharko da:

a) Aurrekontu-ekitaldian aurreikusirik dauden laguntzen edo diru-laguntzen deialdien zerrenda eguneratua, adieraziz zer zenbateko erabiliko diren, zein den diru-laguntzaren helburua edo xedea, eta onuradun izan daitezkeen deskribapena.

b) Ondokoak jasoko dituen zerrenda bat: diru-laguntza bakoitza aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta onura publikoko edo sozialeko eraginak, horiek erdiesteko egokitzat edo beharrezkotzat jotzen den epea, aurreikusitako guztizko kostuak eta finantzatzeko bestelako iturririk izan daitezkeen edo ez.

c) Diru-laguntzen bidez lortu nahi diren helburuek merkatuan eraginik baldin badute, arrazoiturik azalduko da, batetik, diru-laguntza horiek zer neurritan dauden bideraturik hutsak zuzentzera (hutsak identifikatuko dira) eta, bestetik, arrazoiturik da haien eraginek zer neurritan ekarriko duten distortsiorik txikiena merkatuan.

d) Diru-laguntzen deialdien testu osoa.

e) Diru-laguntza horien esleipenak, horiek jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hilabetean, hona-

ko hauek adieraziz: onuradunen zerrenda, laguntzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa.

Salbuespen gisa, isilpean gordetzen ahalko da onuraduna nor den, baldin eta, kasuko diru-laguntzaren xedea dela-eta, onuradunaren datuak argitaratzea ohorearen, errespetuaren eta babesaren aurkakoa bada, edo pertsona fisikoen intimitate pertsonal eta familiarren aurkakoa, oinarri hartuta Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa.

f) Espediente bakoitzaren datuekin batera, datu globalak ere eskaini beharko dira, ordenatuta gutxienez ere entitate adjudikazio-hartzaileka, urtaldika, diru-laguntzen motaka eta diru-laguntzen prozeduraka.

4. Erregelamenduz ezarritako diru-kopuruak gainditzen dituzten diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileetan, ezarriko da diru-laguntzen onuradunek beren zuzendaritza eta gobernu organoen osakerari eta ordainsariei buruzko informazioaren berri eman beharko diotela Administrazio Publikoari, hark jendaurrean jarri ahal ditzan.

### IV. KAPITULUA

#### Informazioa eskuratzeko prozedura

**11. artikulua.** Informazioa eskuratzeko eskaera

1. Zer entitatek duen informazioa, entitate hari zuzendu beharko zaizkio informazio-eskaerak. Administrazio publikoen arloan, informazioa zer organoren menpe dagoen, organo horren titularra izanen da informazio-eskaerak tramitatu eta ebartziko dituen, edo, bestela, ebazteko ahalmena duen goragoko organo hierarkikoa.

2. Informazioa bere menpe duena baldin bada sozietate eta fundazio publiko bat edo zuzenbide publikoko entitate bat, eskaera zuzenduko zaio informazioa duen horri, nahiz bere antolamenduarauetan ezarrita izan dezakeen bere gaineratik duen Administrazio Publikoak izanen duela ebazteko ahalmena.

3. Eskaera egiteko edozein bitarteko erabiltzen ahalko da, baita bitarteko elektronikoa ere, baina, betiere, bidea eman behar du adierazita uzteko eskatzailearen nortasuna, nola nahi duen ebazpena jakinaraztea, eskatzen den informazioaren identifikazio ahalik eta zehatzena eta zer formatutan nahi duen informazioa.

Informazioaren ezaugarriek biderik ematen badute, aukera emanen da eskaera ahoz egiteko, interesduna organo eskudunaren bulegoetara ber-



taratuta; halakoetan, hark eskatutako informazioa berehala jarriko da bere esku. Hori posible ez denean, interesdunari adieraziko zaio eskaera nola egin idatziz.

4. Eskaeran ez badago behar adina identifikatuta eskatzen den informazioaren edukia, eskatzaileari eska dakiok, administrazio-prozedura erkidearen arauekin bat, zuzendu dezala, edo hobetu, eskaera. Edonola ere, organo eskudunak lagundu egingen dio eskatzaileari, arrazoizkoa den neurrian, eskatutako informazioa identifikatzen.

5. Eskaeran aipatzen den informazioa ez bada go eskaera jaso duen organoaren edo entitatearen esku, baina identifikatzerik baldin badago zer organok edo entitatek duen informazio hori, eskaera onartu eta, interesdunari jakinarazita, organo eskudunari helaraziko zaio.

6. Honako kasuetan bakarrik ezesten ahalko da, modu arrazoituan, eskaera bat:

a) Eskatzen duen informazioa salbuetsita dagoenean eskuratzeko eskubidetik, legez edo lege mailako arau baten bidez.

b) Gehiegizkotzat jotzen denean, oso errepikakorra izateagatik.

c) Eskatzen duen informazioa denean prestalantarako erabiltzen ari den dokumentazioari buruzkoa, prestatze-bidean den materialari buruzkoa edo oraindik ebazpenik edo argitalpenik eragin ez duten dokumentu edo datu amaigabeei buruzkoa. Kasu horietan, interesdunari jakinaraziko zaio zer epetan aurreikusten den amaituko direla tramiteak eta egonen dela informazioa eskuragarri.

#### **12. artikulua.** Hirugarrenen eskubidea.

1. Eskatzen den informazioak hirugarrenen eskubideak edo interesak uki ditzakeenean, ebazteko ardua duen organoak hirugarren horiei eskaera helaraziko die, eskatzailea nor den esan gabe, eta hirugarrenok alegazioak egiten ahalko dituzte hamar egun balioduneko epean.

2. Ukituari eskaera bidaltzarekin batera, ebazpen-epea eten egingen da, harik eta alegazioak jaso arte edo emandako epea iragan arte.

**13. artikulua.** Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak.

1. Informazioa eskuratzeko ukatuko da edo mugatuko soilik da lege batek edo lege mailako arau batek ezartzen duenean datuak konfidentzialak edo sekretuak direla.

2. Informazioa ukatzen ahalko da sekretu profesionalari zuzenean eragiten dionean eta jabetza intelektualari eta industrialari. Interesdunari adiera-

ziko zaio zein den eskubideen titularra edo nork lagata eskuratu den informazioa. Edonola ere, datu pertsonalak dituen informazioa eskuratzeko eskaeren ebazpenerako, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Informazioak zerikusia baldin badu ikerketa penal batekin edo alde aurretiko informazio-espeditente batekin, zehapen-espeditente batekin edo diziplina-espeditente batekin, informazio-ematea atzeratu egiten ahal da, harik eta hori ebazpenez edo epai irmo batez amaituta dagoen arte edota artxibatzen den arte.

4. Aipatu diren mugetakoren bat baldin badago eskatutako informazioa emateko, ahal izanez gero informazio hori modu partzialean eskuratzeko bidea emanen da, mugapean dagoen informazioa eman gabe utzita.

#### **14. artikulua.** Ebazpena.

1. Organo eskudunak modu arrazoituan ebaztiko du eskatutako informazioari buruz, eskaera noiz sartzen den bere erregistroan, hamabost eguneko epean gehienez ere.

2. Salbuespen gisa, epea luzatzen ahalko da beste hamabost egun, baldin eta informazioaren zenbateko eta konplexutasuna dela-eta ezinezkoa bada aipatutako epean ematea.

3. Aurreikusitako epean ez bada ebazpenik eman, eskaera onartutzat joko da.

4. Ebazpenean adierazita agertuko da zer formatan edo formatutan emanen den informazioa, eta ziurtatutako da eskubidea ahalik eta eperik laburrenean gauzatuko dela eta informazioa osorik jarriko dela eskatzailearen eskura. Eskatutako informazioaren ezaugarriek horretarako bidea ematen badute, ebazpenaren jakinarazpenaren eranskin gisa gehituko da.

Informazioa, betiere, interesdunak eskatutako forman edo formatuan eman da, salbu eta honako zirkunstantziaren bat, modu arrazoituan, hartzen denean kontuan.

a) Lehenagotik, informazio hori beste forma edo formatu batean zabaldua izatea, eta eskatzaileak hori errazki eskuratzetik badu. Kasu horretan, eskatzaileari adierazi beharko zaio non eta nola eskura dezakeen informazio hori, edo bestela, daukan formatuan helaraziko zaio.

b) Informazioa eskatutako forma edo formatuan emateko zailtasun teknikoak edo ekonomikoak izatea, eta arrazoizkoa bada informazio hori beste forma edo formatu batean jartzea eskatzailearen esku.

5. Interesdunak eskatutako informazioa jendearen eskueran baldin badago inprimatuta –esate baterako, liburuetan, eskuorrietan, artxibo publikoetan–, formatu elektronikoa Interneten, edo beste edozein euskarritan, ebazpenean jakinaraziko zaio hari iturria eta zer lekutan kontsulta, erreproduzi edo eskura dezakeen informazio hori.

6. Informazioa eskueran jartzeko betebeharra betetzat joko da behin dokumentuak eskatzailearen esku jartzen direnean kontsultarako, bai dokumentuok dauden lekuan, bai, hala eskatu denean, kopia soilak, kopia ziurtatuak edo bestelako edozein egiaztagirri egin eta ematen zaizkionean.

7. Ebazten bada informazio bat osoki edo partzialki eskura daitekeela, baina hirugarren bat horren aurka agertu bada kaltegarria gertatzen zaiolako, ez da informaziorik emanen harik eta errekurtsua jartzeko epea pasatzen den arte edo ebazpen irmoa ematen den arte.

## **V. KAPITULUA**

### **Gardentasuna kontrolatzeko eta ziurtatzeko organoak**

**15. artikulua.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua.

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua, komunikazioaren arloan eskumena duen departamentuari baitago atxikia, gardentasunaren eta informazioaren eskuragarritasunaren arloko kontsulta- eta aholku-organoa da, eta arlo horretako auziak ebatziko dituena; ez dago jarraibide hierarkikoen menpe, eta autonomia erabatekoa du bere eginkizunak betetzeari dagokionez.

2. Kontseiluak bost kide izanen ditu, Nafarroako Gobernuak sei urterako izendatuak.

a) Horietatik hiru, Nafarroako Parlamentuak proposatuta. Parlamentu-talde bakoitzak hautagai bat aurkeztuko du, eta botorik gehien lortzen dituzten hiru hautagaiak hautatuko dira.

b) Bat, kazetarien elkarte profesionalek proposatuta.

c) Bat, Nafarroako abokatuen elkargoek proposatuta.

Kontseiluko kideek, beraien artetik, lehendakari bat eta idazkari bat hautatuko dituzte.

3. Kontseiluko kideek lanbide-jardueretan, zerbitzu publikoetan nahiz jarduera akademikoetan izen ona duten pertsonak izan beharko dute, hautatutako kargu politikoetan nahiz izendapen askekoetan edo alderdi politikoetako zuzendaritza-karguetan aritzen ez direnak edo azken bost urteetan aritu ez direnak. Zuzenbideko edo Zientzia Politikoetako lizentziatu titulua eduki beharko dute.

4. Kontseiluko kideek honako arrazoiengatik soilik utziko dute kargua:

a) Ezarritako epea amaitzeagatik.

b) Karguari uko egiteagatik edo hiltzeagatik.

c) Izaera politikoko kargu baterako izendatuak edo hautatuak izateagatik.

d) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitzea, epei irmo bidez emandakoa.

Kideetako baten kargu-uztea gertatuz gero, adierazitako arrazoietako edozein dela kausa, agintaldiaren amaiera kenduta, bidezko izanen da beste kide bat izendatzea, kargua utzi duen kidea proposatu zuen organoak proposatuta. Kide berri horren agintaldia kontseilua guztiz berritu artekoa izanen da.

4. Nafarroako Gobernuak Kontseilua hornituko du bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabide pertsonalez eta materialez.

**16. artikulua.** Eginkizunak.

1. Hauek dira, besteak beste, Gardentasunaren Kontseiluaren eginkizunak:

a) Foru lege honetan ezarritakoaren betearazpenean eta garapenean eragina duten arau, neurri edo jarraibideei buruz informatzea eta, kasua bada, haiek proposatzea.

b) Foru lege honetan gardentasuna dela-eta arautu diren errekurtsuez arduratzea eta haiek ebaztea.

c) Foru lege honetako xedapenak betetzen direla zaintzea eta, kasua bada, egokitzen jotzen dituen txosten edo gomendioak ematea.

d) Herritarrei orientabideak eta aholkuak ematea informazioa eskuratzeko eskabideei buruz.

e) Administrazio publikoari aholkua ematea foru lege honetako xedapenen betetzeari buruz.

f) Urteko txosten bat egin eta argitaratzea, foru lege honetako xedapenen betetzeari buruzkoa. Txostena Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio. Txosten horretan, gutxienez ere, egoitza eta entitate bakoitzean informazioa eskuratzeko aurkeztutako eskabideak jasoko dira, bai eta eskabide horien emaitzak, erantzuteko denborak, haien zenbatekoa eta kontseiluak ebatzitako errekurtsuen emaitza ere. Halaber, foru legea betetzeko antzeman diren zailtasunak eta egokitzen jotzen diren gomendioak jasoko dira.

2. Kontseiluaren ekitaldi eta ebazpen guztiak publikoak izanen dira.

3. Bere eskurantzak betetzeko, kontseiluak laguntza eskatu ahalko die administrazio publikoetako organoei. Halaber, lekukotasun guztiak jaso eta bere gaitasunaren esparruan sartzen diren egoerak aztertzeko behar diren informazio eta dokumentu guztiak eskuratu ahalko ditu.

**17. artikulua.** Gardentasunari buruzko errekurtsua.

1. Informazioa eskuratzeko eskabideak, foru lege honetan araututakoak, direla-eta organo eskudunek hartzen dituzten ebazpenak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren aurrean aurkatu ahalko dira.

2. Errekurtso hori aurkeztu ahalko da aurkaturako ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean. Kontseiluak errekurtsua igorriko dio eskatutako informazioa daukan organoari, eta azken horrek, bere alegazioekin batera, gaurkotutako guztia dakarren espedientearen aurrean, gehienez ere 10 eguneko epean. Kasua bada, hirugarren interesdunei ere helaraziko zaie, alegazioak aurkeztu nahi badituzte ere.

3. Errekurtsoa hilabeteko epean ebatziko da. Ebazpenek amaiera emanen diote administrazio bideari eta berehala betearazi beharrekoak eta lotesleak izanen dira. Entitateari dagokio haiek berehala betearaztea.

4. Artikulu honetan aurreikusitako errekurtsua aukerakoa eta ordezkoa izanen da. Ez du eragotziko beste organo batzuei erreklamazio edo errekurtsu gehiago aurkeztea.

5. Gardentasunaren arloko errekurtsua aurkeztuz gero, ezin izanen da aurkeztu arrazoi berean oinarritutako administrazio errekurtsu gehiagorik.

6. Artikulu honetan aurreikusten ez den orotan aplikatuko da administrazio prozedura arautzen duten legeek errekurtsoei buruz xedatutakoa. Erregelamendu bidez ezarriko da errekurtsu horiek ebazteko prozedura.

**18. artikulua.** Beste berme batzuk.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da eragozpena izanen lege indardunetan ezarritakorako, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskurantzari edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren errekurtsuak aurkezteari dagokienez.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen aldaketa.

Aldatzen da martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legeko 4. artikulua. Artikulu horren bidez, izan ere,

Gobernu Onaren Kodea ezartzen da. Honakoa izanen da haren testua.

“1. Urtero, Nafarroako Gobernuak aztertuko du kontseilari eskudunak eginiko txostena, zeinetan agertuko baitira foru lege honetan ezarritako etika-eta jardun-printzipioen balizko urraketak. Horren xedea izanen da Gobernuaren eta Gobernuko goi karguen bateraezintasunei buruzko beste foru legeetan ezarritakoaren arabera has litezkeen prozedurak eta jarduerak aztertea. Txosten hori Gobernuaren atarian argitaratuko da eta Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio.

2. Toki entitateen Osoko Bilkurak, edo organo baliokideak, bere lehendakariak eginiko txostena ezagutuko du, aurreko idatz-zatian aurreikusitako norainoko berarekin.”

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kontratu publiko bidezko buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Aldatzen da Kontratuei buruzko azaroaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 28. artikulua. Honako testua izanen du:

“1. Nafarroako Gobernuak Interneten, Kontratazio Publikorako Batzarraren pean, Nafarroako Kontratazioaren Ataria edukiko du. Atari hori foru lege honen menpeko entitateen lizitazioen publikitaterako bide ofiziala izanen da. Hori dela eta, nahitaezko iragarkiak argitaratu izana eta argitaratze data egiaztatu ahal izateko behar diren neurriak antolatuko dira.

2. Atariak honako gaiei buruzko informazioa eman beharko du:

a) Foru lege honen menpeko entitate eta kontratazio organoei buruzko datu orokorrak; esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta posta elektronikoren kontua.

b) Egiten ari diren lizitazio guztien berri emanen du, eta eskura egonen dira kontratua gauzatzeko baldintza guztiak eta gainerako agiri osagarriak, halakorik denean, programatutako kontratuak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako lizitazioak eta kontratazioa behar bezala kudeatzeko beharrezko edo komenigarriak diren beste informazio guztiak.

c) Adjudikatutako kontratuei buruzko informazioak, adjudikazio ekintzaz eta kontratuaren testu osoaz gainera, honakoak jasoko ditu: haren aldaketak, exekuzio- zein likidazio-ekintzak eta, kasua bada, ebazteko ekintzak.

f) Espediente bakoitzaren datuekin batera, datu globalak ere eskaini beharko dira, ordenatuta

gutxienez ere entitate adjudikazio-hartzaileka, urtaldika, kontratu-motaka eta adjudikazio-prozedurak.

e) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

Bi. Foru lege bereko 60. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Hau du testu berria:

“2. Inoiz ere ezin izanen da mahaikide gisa izendatu langile publiko ez den pertsonarik; izan ere, ezin izanen dute parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez aldi baterako funtzionarioek edo behin-behineko langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere.”

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Aldatzen da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15. artikulua. Honela geldituko da testua:

“Halakoak ematen dituzten organo administratiboek emandako diru-laguntza guztiei buruzko informazioa emanen dute, bai bertatik bertara, bai Internet bidez, Nafarroako administrazio publikoen gardentasunari buruzko legeetan ezarritakoaren arabera.”

Bi. Foru lege bereko 20. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Hau du testu berria:

“3. Deialdian, eman beharreko diru-kopuruaren zenbateko eskasa dela eta, kontrakoa ezartzen ez den bitartean, eskariak ebaluatzeaz arduratuko den organo kolegiatu bat eratuko da. Haren irizpea loteslea izanen da. Inoiz ere ezin izanen da kide gisa izendatu gaitasun tekniko egokia izan eta langile publiko ez den pertsonarik; izan ere, ezin izanen dute parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez aldi baterako funtzionarioek edo behin-behineko langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere.” Instrukzio organoak, ebaluazioa ikusirik, ebazpen proposamena eginen du.”

**Laugarren xedapen gehigarria.** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen aldaketa.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarria aldatu, 4. idatz-zatia hain zuzen, eta honela geldituko da:

“4. Planeamenduko erregistroa publikoa da. Publikotasuna gauzatuko da planeamendu zehatz bakoitzaren edukiarri buruzko ziurtagiriaren bidez, horretarako gaitutako funtzionarioak luzatuko

baitu, edo erregistroko agiriei buruzko informazio-ohar edo kopia soilaren bidez, zeinak ez baitu izanen administrazio kostua baino prezio garestiagorik. Nolanahi ere, Internet bidezko doako sarbidea egonen da eduki osora.”

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 5. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“1. Goi karguan aritzearekin bateragarri diren jardueretan kargu publiko gisa aritzea galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta leku-aldatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein administrazio publikotatik datorren, haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.”

Bi. Foru lege bereko 3. bis artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatiak aldatzen dira eta honela idatzita geratzen dira:

“2. Kargua utzi eta biharamunetik, Nafarroako Gobernuo kideek eskubidea izanen dute hileroko prestazio ekonomiko bat jasotzeko, kargua utzi aurretik jasotzen zituzten ordainsarien urteko guttizko kopuruaren ehuneko 80aren hamabiren batekoa. Karguan egondako denbora zenbat izan den, denbora horren erdia egiten duen epe batez jasotzen ahalko dute prestazio hori; betiere, hogeita lau hileroko jasotzen ahalko dituzte gehienez.

Prestazioa sorrarazten den bitartean, ez bada bidezkoa interesdunari bere aurreikuspen sozialeko sisteman alta ematea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen berezi bat sinatzen ahalko du, eta horren ondoriozko kotizazioak itzultzeko eskubidea izanen du.

3. Aurreko idatz-zatian araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatiko ordainsariekin, sektore publikokoak izan edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatiko dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatiko dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Ordainsari, erretiro-sari edo diru-sarrera horiek, urteko guztiak kontatuta, baxuagoak badira aurreko idatz-zatian adierazitako prestazio ekonomikoa baino, eskubidea izanen dute bien arteko aldea jasotzeko, bakarrik.

4. Administrazio publiko batean edo horien menpeko erakunde batean lanpostu bat erreserbatuak duten enplegatu publikoek ez dute aurreko idatz-zatietan ezarritako prestazio ekonomikoa inolaz ere jasoko.”

**Seigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeko 35. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“1. Nafarroako Gobernuo lehendakariaren lan-sariak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatuko dira, berariaz eta zenbatekoa adierazita.

2. Nafarroako Gobernuo lehendakariak ez du Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatuta ez dagoen beste diru kopururik jasoko lehendakari karguan edo hari lotutako beste batzuetan aritzeagatik. Kide den beste organo edo erakundeen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen baditu, diru kopuru horiek Foru Ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

Bi. Foru legearen 45. idatz-zatia aldatzen da, eta honako testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Gobernuo kontseilarien ordain-sariak ez dira inola ere izanen Nafarroako Gobernuo lehendakariak jasotzen duena baino handiagoak, eta zenbatekoa espresuki jasoko da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean.

2. Nafarroako Gobernuo kontseilariak ez dute Nafarroako Aurrekontu Orokorretan finkatuta ez dagoen beste diru kopururik jasoko kontseilari karguan edo hari lotutako beste batzuetan aritzeagatik. Kide diren beste organo edo instituzioen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen badituzte, diru kopuru horiek Foru Ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 6. artikulua aldatzen da, zeinari 3. eta 4. idatz-zati berriak gehituko baitzaizkio. Hartara, honela idatzita geldituko dira:

“3. Prozedura bat abiatzen duen edo ofizioz hasitako prozedura batean interesdunaren izaera duen edozein herritarri idatziz jakinaraziko zaio nor den hura ebazteko agintari eskuduna, horren barne direla titularraren izen-abizenak, bai eta zein langile publikori esleitu zaion espedientearen instrukzioa, honako datuak barne direla: izen-abizenak, lanpostua, aurkitzeko moduan egonen den egoitza, telefonoa eta posta elektronikoko helbidea.”

4. Legez ezarritako epearen barruan berariazko erantzunik jasotzen ez duten herritar guztiak eskubidea izanen dute kasuko agintari edo enplegatu publikoaren erantzukizuna exijitzeko eta haren ondorioz komunikazio bat jasotzeko, espedientea zuzen ez izapidetzeari buruzko arrazoiei buruz eta, kasua bada, hartutako diziplina-neurriei buruz.”

Bi. Foru legeko 15. artikulua aldatzen da, hari 3. idatz-zatia gehitzeko. Hona nola geratuko den:

“3. Departamentu, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio orok beren urteko oroit-dazkia publiko egin beharko dute ekitaldi bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, eta proposatutako helburuen betetze-maila zehaztuko dute. Halaber, Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek onesten dituzten plan guztietan aurreikusiko da exekuzio- edo aplikazio-epea amaitu baino lehen haren betetzeari buruzko ebaluazio-plan bat eginen dela; plan hori publiko eginen da.”

Hiru. Foru legearen 109. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da, eta honako testu hau izanen du:

“1. Erakunde publikoetako zuzendaritza-kideek Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko kasuko foru legeetan ageri diren ordainsariak jasoko dituzte, zeinak ez baitira inola ere izanen Nafarroako Gobernuo lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak, eta ez dute horietan ezarritakoaz bestelako zenbatekorik jasoko bere karguan aritzeagatik edo karguari atxikita leudekeen bestetan aritzeagatik. Kide diren beste organo edo instituzioen bilkuretara joategatik dietak edo ordain ekonomikoak jasotzen badituzte, diru kopuru horiek Foru Ogasunak sartu edo atxikiko ditu.”

Lau. Foru legeko 126. artikulua aldatzen da, hari 5. idatz-zatia gehitzeko. Hona nola geratuko den:

“5. Fundazio publikoetako zuzendaritza-kideen ordainsariak fundazio horien aurrekontuetan jaso beharko dira. Ezin izanen dira inola ere izan erakunde publikoetako zuzendaritza-kideentzat ezarritakoak baino handiagoak, eta publiko egin beharko dira.”

**Zortzigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeko 111. artikulua aldatzen da, zeinari 4. idatz-zati berri bat gehituko baitzaio. Hartara, honela idatzita geldituko da:

“4. Administrazio Kontseiluko kideen eta Batzar Nagusiko kideen eta zuzendaritza-kideen ordainsariak publikoak izanen dira. Ezin izanen dira inola ere izan Nafarroako Gobernuako lehendakariak jasotzen dituenak baino handiagoak.”

**Bederatzigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 226. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da, zeina honela idatzita geldituko baita:

“2. Nolanahi ere, mahaia, lehendakaria salbuespen bakarra dela, behar den gaikuntza teknikoa daukaten langile publikoek osatuko dute, eta inoiz ere ezin izanen dute hartan parte hartu ez hautapen libreko edo izendapen politikoko langileek, ez behin-behineko funtzionario edo langileek, ez aldi baterako kontratua duten langileek ere.” Salbuespen gisa, 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan udalbatzako kideek parte hartu ahalko dute, betiere dauden talde politiko guztiak ordezkaturata badaude. Nolanahi ere, mahaian entitateko idazkariak edo titulazio hori eskatzen deneko lanpostuan diharduen zuzenbideko lizentziatu batek hartuko dute parte, eta idazkari lanak eginen dituzte. Mahaikideak ez badira teknikari adituak kontratuak xede duen gaian, mahaia behar diren txosten teknikoak eskatu beharko ditu, esleipen proposamena haietan oinarritzeko. .

**Hamargarren xedapen gehigarria.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 8. artikulua. Bi idatz-zati gehituko zaizkio; hona haien testuak:

“3. Hautapen organoak kolegiatuak izanen dira, eta haien osakerak kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioen arabera izan beharko du, eta emakumearen eta gizonaren parekotasuna ere bilatuko da. Hautapen edo izendapen politikoko langileek, behin-behineko funtzionario edo langileek eta aldi baterako kontratua duten langileek ezin izanen dute hautapen-organoen partaide izan.

4. Hautapen proben izaerak horretarako bidea ematen duen guztietan, izangaien anonimotasunari eutsiko zaio, plika-sistemaren edo antzeko beste sistema batzuen bitartez.”

**Hamaikagarren xedapen gehigarria.** Herritarren parte-hartzeari buruzko foru legea.

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzeari buruzko foru lege proiektu bat igorriko dio Parlamentuari.

**Hamabigarren xedapen gehigarria.** Genero-berdintasuna hizkeran.

Zenbait pertsona, lanpostu edo karguri buruz ari denean, foru lege honek, gaztelaniazko testuan, genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasuetan ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delako horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, aipatutako pertsonen edo kargu edo lanpostu horien titularren sexua edozein dela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe geratzen dira foru lege honetan xedatuari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina arau-xedapen eman ditzan foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

Zioak: 1. Legearen xedea. Proiektuak biltzen dituen gaiak badute elkarrekin zerikusia, baina ezberdinak dira. Batetik, gardentasuna, baina, gainera, gobernu irekia. Ez du zentzurik pentsatzeak bigarren hori berariazko foru lege bakar batean arautu daitekeenik; gobernu irekiak, izan ere, parte hartzeko bidea ematen duen gobernu edo administrazioaren sinonimoa bada, prozesu ororen arauetan egon behar du islatua. Bestalde, zerbitzu publikoen kalitatea ere ageri da, zeina arautua baitago dagoeneko arau berezi batean, hau da, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legean, zeinari proiektuak ez baitio ezer berririk eransten. Bestalde, erraztasun administratiboa; jardunbide edo teknika hori beti behar da Administrazio Publikoan, baldin eta benetan gauzatu nahi badira eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioak. “Erraztasunaren printzipioa” jasoa dago jada gorago aipatutako 21/2005 Foru Legearen 4. n) artikuluan, honela: “tramiteak arindu, alferreko prozedurak kendu eta itxaronaldiak murrizten dituzten teknika eta metodoak erabiltzea”. Eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 3.2.f) artikulua ezarria du beste printzipio hau ere: “arrazionalizazioa eta arintasuna administrazio-prozeduretan eta kudeaketa lanetan”. Horrenbestez, ez dago gai horiei buruzko araurik sartu beharrik foru lege proiektu honetan. Gobernuaren jarduna, bestalde, araututa dago Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean eta Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legean. Arau batzuk errepikatuta egiten dira lege horietan, bai eta beste lege batzuetan ere; beraz, Gobernuaren etika eta gardentasuna arautzen duen titulua soberan dago proiektuan. Ez zen beharrezkoa, era berean, “Gobernu Irekia” ataria Gobernuaren web-atariaren markoan arautzea, horretarako arauak badira eta apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa Ezartzekoan.

Beraz, proiektuak ukitzen dituen gaiak beste lege batzuetan araututa daude, eta errepikakorra izateko arriskua dago. Ordezko testuak nahiago izan du orain arte behar adina arautu gabe zegoen gai batean zentratzea, gardentasunarenean hain zuzen, legeetan jasota dauden printzipioak gauzaraziko dituzten mekanismoak osatze eta garatze aldera.

Hala ere, uste dugu herritarren parte-hartzearen gaiak berariazko arautze bat eskatuko lukeela, eta proiektuan baino anbizio handiagoz heldu beharko litzaiokeela gai horri. Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat prestatu behar luke urtebeteko epean. Irizpide hori bera agertzen da Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek 2012ko apirilaren 17an sinatutako txosten batean; txosten horretan aztertzen da zer eragin izan lezakeen hizpide dugun foru lege proiektuan Lehendakari Ministerioa tramitatzen ari den lege-aurreproiektuak, gardentasunari eta gobernu onari buruzkoak. Honela dio: “Plantea liteke, legegintza egokiaren ikuspuntutik, bi foru lege proiektu tramitatzea. Batak mugari izanen lituzke gardentasunari eta gobernu onari buruzko legearen behin betiko testuak ezarritakoak. Bestea, berriz, gobernu irekiaren gainekoa izan liteke, eta horrek eskatuko luke, agian, aztertzea zer eragin juridiko-konstituzional izan lezakeen; izan ere, gobernu irekiak oinarri dituen demokrazia parte-hartzailearen kontzeptuak eta erantzukizun-arauak ez datoz beti bat ordezkate-sistema batek dituenarekin.

2. Araututakoaren eragin-esparrua. Proiektuaren arabera, arauok Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari bakarrik aplikatuko zaizkio. Ordezko testuak, aldiz, ezartzen du Nafarroako administrazio publiko guztiek jokatu behar dutela gardentasunez beren jardunean, baita toki entitateek ere, ez baitago arrazoirik urtebete itxaroteko –hala ondorioztatzen da hirugarren xedapen gehigarritik– entitateontzako arauak emateko.

3. Arauen kalitatea. Proiektuak arauen kalitateari buruzko xedapenak ematen ditu, baina, egiantan, urratu egiten ditu aipatzen dituen printzipioak.

Beharrendaren printzipioaren kontra doa, halaber, proiektuaren luzera gehiegizkoa. Aipatu denez, era askotako gaiak biltzen dira, baina gehienak araututa daude beste foru lege batzuetan, eta ugari dira, halaber, errepikapen hutsa diren arauak edo indarrean diren beste arau batzuetara igortzen dutenak.

Segurtasun juridikoaren eta erraztasunaren printzipioak ere urratu egiten dira; izan ere, zenbait gai, dagozkien foru legeetan arautu beharrean (kontratuenean, diru-laguntzenean, Gobernuarenean, etab.), proiektu honetan arautzea erabaki da. Aukera hori arrazoitzeko, esan zaigu –parlamentu-talde honek aurreproiektuari eginiko oharrei emaniko erantzunean– nahi dela arauak ez egotea barreatuta, eta komenigarria dela testu batean biltzea gaiari buruzko xedapen guztiak, halako moduz non herritarrak ezagut ditzan alor honetan dituen eskubideak, berariazko arau bakoitzera jo behar izan gabe. Argudio ahula da hori. Gardenta-

sunari buruzko arau guztiak foru lege batean egoitea interesgarria da soilik gardentasunaren gaineko espezialistentzat edo adituentzat, eta horiek, noski, oso gutxi dira. Operadore juridikoei (herritarrei, funtzionarioei, epaileei, etab.), normalean, ez zaie interesatzen sakon ezagutzea gardentasunaren araubidea, baizik eta konpontzea problema zehatz bat, gai zehatz bati buruzkoa: kontratuak, diru-laguntzak, aurrekontuak, hirigintza, funtzio publikoa, etab. Eta zer araudi sektorial aplikatu behar duten, erantzuna araudi horretan ematea da zuzena. Hori ordezeko testuaren bidetik lortzen da, hau da, araubide sektorial bakoitzean aldaketa partzialak sartuz –kasuan-kasuan egokiak diren gardentasunerako tresnak eta teknikak–. Horrekin ez zaie kalterik egiten gardentasunaren adituei, berriazko foru lege bakoitzean aurkituko baitituzte aldaketa horiek guztiak.

Erraztasunaren printzipioari dagokionez, testuak –proiektuarenak– urratu egiten du printzipio hori, behar baino luzeagoa eta errepikakorragoa delako. Esan daiteke gauza bera artikulua askoz ere gutxiagorekin, eta horretan saiatu gara ordezeko testuan.

Eraginkortasunaren printzipioa ere, hau da, “lortu nahi diren helburuak garbi identifikatzea, helburu zuzenak ezarriz eta azken helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren alferrikako zamak saihestuz”, ez dator bat proiektuaren testuarekin, helburu asko lortu nahi baititu aldi berean, eta gai oso ezberdinak arautzen baititu.

Denetara ere, araudiaren kalitatea hobetzeari buruzko xedapenek ez dutenez ondorio juridikorik, ez baita inongo kontrol-mekanismorik ezarri begiratzeko ea betetzen ote diren edo ez diren, xeda-

penok asmo onak besterik ez dira, eta, beraz, ken litezke foru legearen testutik.

4. Ordezko testua, horrenbestez, gardentasunean zentratzen da, eta ahalik eta modu zehatz, argi eta soilenean arautzen du zer mekanismoren bidez lortuko den administrazio publikoen jardunbidearen gardentasun-maila gorena, beste lege batzuetan araututa dagoenaren errepikapenik gabe, ez baita beharrezkoa, eta nazioartean azken urteotan onesten joan diren legeen ildotik.

Bereziki, Europako Kontseiluak onetsitako Dokumentu Publikoak Eskuratzeari buruzko Hitzarmenak 8. artikuluan hala exijitzen duenez, erreklamazio-prozedura “azkar eta merke” bat arautzen da, “legeak ezarritako erakunde independente eta inpartzial” baten bidez. Horretarako, organo espezializatu eta independente bat sortzen da, Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua, zeinari, gainera, foru legearen aplikazioaren kontrol-eginkizun batzuk ere gehitu baitzaizkio. Gobernuaren foru lege proiektuak proposatzen duena, hots, herritarrek administrazioarekiko auzietako jurisdikziora jo dezatela, ez da nahikoa, kontuan hartu behar baita bide hori ez dela izaten ez azkarra, ez merkea.

Era berean, ordezeko testuak beste lege batzuen aldaketa puntualak ere eskaintzen ditu, asmoa baita, betiere, aipatutako helburuak lortzen laguntzeko mekanismo zehatz eta soilak ezartzea, hala nola honakoak: “kargu bat, soldata bat” dioen printzipioa; ordainsari publiko guztien publikotasuna; edo kontratuen, diru-laguntzen edo langile publikoen hautaketan parte hartzen duten organo kolegiatuen izaera erabat profesional eta ez-politiko.